

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK

GIZA BALIABIDEEN ETA ADMINISTRAZIO KUDEAKETAREN ZERBITZUA

Ebazpena, onesten duena Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoan ondore faseko lanpostuak betetzeko deialdian deitutako lanpostuen behin betiko esleipena

Ebazpena 2/2023.

Lehendakaritzaren urriaren 7ko 1/2022 Ebazpenaren bidez, deialdiaren oinarri espezifikoetan zerrendatutako lanpostuak betetzeko merezimendu lehiaketaren deialdiaren oinarriak onetsi ziren, bai eta I. eranskinean jasotako lehiaketaren parte diren lanpostu hutsen zerrenda ere.

Prozesuan onartutakoen eta bazter utzitakoen zerrenda behin betiko argitaratu ondoren, eta oinarri espezifikoetan ezarritakoarekin bat etorriz, Balorazio Batzordeak izangaien merezimen-
duen behin-behineko balorazioa argitaratu zuen, bai eta 2022ko abenduaren 16an deitutako lanpostuak esleitzeko behin-behineko proposamena ere, eta hamar egun balioduneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Balorazio Batzordeak erabaki zuen oinarri espezifikoetan jasotako ondore prozesua irekitzea, eta erakunde autonomoko presidenteak, 2023ko urtarrilaren 5eko Ebazpenaren bidez, onetsi zuen lanpostua hasieran lortu zuten izangaien behin betiko zerrenda eta ondore prozesua irekitzea. Hamargarren oinarri orokorraren laugarren paragrafoaren arabera eginda, Balorazio Batzordeak fase horretan eskainitako lanpostuetarako izangaien zerrendaren proposamena aurkeztu du.

Hamargarren oinarri orokorrean ezarritakoa betez, lehiaketa hori ebazten da eta erakundearen iragarki taula birtualean argitaratzen da laugarren paragrafoko ondore prozesuan deitutako lanpostuen behin betiko zerrenda eta ALHAOn ondore prozesuaren ondorioz, eskatutako lanpostu bakoitzari dagokionez behin betiko izendatutako pertsonak, bere izen-abizenak jasota.

Horregatik, eta ditudan ahalmenez baliatuz, hauxe,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Onestea behin betiko zerrenda, eskatutako lanpostu bakoitzaren arabera, ondore fasearen ondorioz izendatutako funtzionarioen izen-abizenak adierazita. I. eranskinean jasotzen dira.

Bigarrena. Xedatzea aipatutako ebazpena erakundearen iragarki taula birtualean eta ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epealdian, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa hilabeteko epean, xedapena onartu duen organoaren aurrean, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz (hori urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta dago).

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 10a

Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Automoaren presidentea
IRMA BASTERRA UGARRIZA

I. ERANSKINA

Ondore prozesuko suhiltzaile-gidarien destinoen behin betiko esleipena

HURRENKERA	NAN	LEHEN ABIZENA	BIGARREN ABIZENA	IZENA	DESTINOEN ESLEIPENA
1	***3366**	AGUINACO	LAVIN	JON	1106 904 Langraiz Oka
2	***2684**	IZAGA	OLALDE	MIKEL	1106 002 Ludio
3	***2726**	LOPEZ DE AGUILETA	RODRIGO	AITOR	1106 003 Ludio
4	***5020**	JAUREGUI	RUIZ	AITZOL	1106 114 Agurain
5	***6445**	IBARGUREN	PEÑA	EUKENI	1106 008 Ludio
6	***3581**	LOZANO	AGUIRRE	ASIER	1106 015 Ludio
7	***3502**	BILBAO	ORTEGA	IKER	1106 021 Ludio

Ondore prozesuko dotazioburuen destinoen behin betiko esleipena

HURRENKERA	NAN	LEHEN ABIZENA	BIGARREN ABIZENA	IZENA	DESTINOEN ESLEIPENA
1	***7963**	GARRIDO	ESPINOSA	JAVIER	1105 202 Guardia
2	***2576**	PANICERES	CORRALES	JOSE LUIS	1105 904 Langraiz Oka